

EAEren ETA TXINAREN ARTEKO HARREMAN EKONOMIKOAK: AUKERAK ETA ERRONKAK

ANDONI MAIZA LARRARTE

Ekonomia Aplikatua I

Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

Oñati Plaza, 1 zenbakia, 20018 Donostia

joseantonio.maiza@ehu.es

RICARDO BUSTILLO MESANZA

Ekonomia Aplikatua V

Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea - Sarriko

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

Lehendakari Agirre, 83 zenbakia, 48015 Bilbo

ricardo.bustillo@ehu.es

LABURPENA

Artikulu honen helburu nagusia da EAEren eta Txinaren arteko harreman ekonomikoak aztertzea: zein izan da harreman horien bilakaera eta zein egungo garrantzia? 80ko hamarkadatik Txinak lortu duen hazkunde ekonomiko biziaren eraginez bi ekonomien arteko loturak estutu egin dira: 2011n, EAEk Txinan erosi zuen bere guztizko inportazioen %5,3, eta Txinako merkatuan saldu zuen bere esportazio totalen %2,2. Halaber, gero eta enpresa gehiagok erabaki dute Txinan ezartzea. Argi dagoenez, Asiako Dragoi Handiaren hazkundeak aukerak eta erronkak dakartza herrialde garatu guztiontzat, eta EAEko ekonomiaren etorkizuna ere estuki lotuta egongo da inguru global berrian lehiakor izateko gaitasunarekin.

Hitz gakoak: EAE eta Txina. Kanpo-merkataritza. Atzerriko Inbertsio Zuzena. Aukerak. Erronkak.

JEL kodea: F10.

1. SARRERA

Munduko ekonomia abiadura bizian aldatzen ari da azken hamarkadetan, “globalizazio” izenez ezagun den fenomenoaren ondorioz. Zalantzarik gabe, eraldaketa esanguratsuenetariko bat izan da hazkunde handiko herrialdeen¹ agerpena: Txina eta India eta –neurri txikiagoan– Errusia eta Brasil ekonomia globalaren motor bihurtu dira.

Baldwin eta Martinen (1999) arabera, globalizazioaren bigarren olatuan herrialde garatuak desindustrializazioa nozituko dute; hazkunde handiko herrialdeek, aldiz, industriaren garapena jasango dute. Horren ilduan, egungo krisialdian, atzeraldia batez ere ekonomia garatuetan gertatzen ari da². Herrialde garatuaren artean, egoera bereziki larria da Europa hegoaldeko herrialdeetan; Espainian, Italian, Grezian eta Portugalen langabezia-tasa eta defizit publikoa modu nabarian handitu egin dira, eta, aldi berean, zor subiranoari lotutako arazoak nozitzen ari dira. Datorren urteotan egoera ez da gehiegi aldatuko: adibidez, Alemaniaren kanpo-inbertsioek “BRIC” herrialdeen merkatuak bilatu eta Hego Europako merkatuak utziko dituzte (Salavrakos, 2009).

EAEko ekonomia ere krisialdiaren eraginak pairatzen ari da; Eustaten datuek azaltzen dutenez, BPGaren urte arteko hazkunde-tasa %0,6koa izan zen 2011. urtean (%0,3koa, 2010. urtean). Kezkagarria da oso barne-eskariaren bilakaera; familien kontsumoa, gastu publikoa eta kapital-eraketa gordina murrizten ari dira.

Kanpo-sektorea, aldiz, hazkunde ekonomikoaren sustatzaile nagusia da; horrela, 2011n, esportazioak %9 hazi ziren (inportazioak, %7,4), eta etorkizun hurbilari begira ere, EAEko enpresen igurikimen positiboan kanpo-merkatuei lotuta daude.

1. Ingelesezt BRIC laburduraren bitartez ezagun diren herrialdeak: Brasil, Errusia, India eta Txina. Azkenaldian, Hego Afrika ere hazkunde handiko herrialdeen zerrendan aipatu ohi da.

2. ELGaren datuen arabera, 2008-2011 tartean, Txinak eta Indiak %6-%10 arteko hazkunde-tasak lortu dituzten bitartean, Europako ekonomia boteretsuenak, AEB eta Japonia krisialdian murgilduta izan dira, eta oraindik orain atzeralditik ateratzeko ahaleginetan dabiltza.

1. Taula. EAEko datu makroekonomikoak

(% urte arteko aldakuntza-tasak)

	2010	2011	2012*	2013*
Kontsumoa	0,9	0,6	-1,1	-0,9
Gastu Publikoa	2,3	-0,8	-2,2	-1,2
Kapital Eraketa Gordina	-6,0	-1,5	-4,8	-3,4
Barne Eskariaren Ekarpina	-0,5	-0,1	-2,2	-1,7
Kanpo Saldoaren Ekarpina	0,8	0,7	1,0	0,9
BPG (m. p.)	0,3	0,6	-1,2	-0,8

*2012ko irailean egindako aurreikuspenak.

Iturria: Koiunturaz. 80. buletina. Ekonomia eta Ogasun Saila. Egileak landua.

Beraz, funtsezkoa izango da Erkidegoko enpresek gaitasuna izatea bezero berriak lortzeko Txina, Brasil, India eta Errusia bezalako hazkunde merkatutan (jakina, tradizio handiagoko merkatu europarra eta estatubatuarra ahaztu gabe). Halaber, oso garrantzitsua bilakatu da Txina eta bere inguruko herrialdeetan ekoizteko gaitasuna garatzea (McKay eta Song, 2010).

Horiek guztiak aintzakotzat hartuta, artikulu honen helburu nagusia da EAren eta Txinaren arteko harreman ekonomikoak aztertzea. Zer bilakaera izan dute harreman horiek azkeneko bi hamarkadetan? Zer garrantzia dute gaur egun? Eta, azkenik, etorkizunari begira, zer aukera eta erronka dituzte Erkidegoko enpresek Asiako Dragoi Handiaren hazkundearen aurrean?

2. EAren eta Txinaren arteko merkataritza

2.1. Garrantzia eta bilakaera

EAren eta Txinaren arteko merkataritza modu nabarmenean garatu da epe oso laburrean. Erkidegoko datuek azaltzen dutenez, 1990. urtean bai esportazioen, bai inportazioen kopurua oso txikia izan zen. Hamar urte geroago, esportazioen balioa oraindik nahiko baxua zen (49,2 milioi euro); inportatutakoaren kopurua, aldiz, dezente handiagoa zen (307,2 milioi), eta, ondorioz, kanpo-saldoaren defizita ere esanguratsua zen (-258 milioi).

2. Taula. EA Eren eta Txinaren arteko kanpo-merkataritza

(milaka euro)

	1990	2000	2008	2009	2010	2011
Esportazioak	20.603	49.191	401.504	260.829	406.595	469.919
Inportazioak	13.364	307.180	1.119.892	712.321	883.340	906.722
Kanpo-saldoa	7.239	-257.989	-718.388	-451.492	-476.745	-436.803

Iturria: Eustat. Egileak landua.

Dena den, lurralde bien arteko merkataritza batez ere 2000. urtetik aurrera garatu da, hau da, EA Eren susperraldiak Txinakoarekin bat egitean: 2008an, esportazioen balioa 1990ekoa baino 18 aldiz handiagoa izan zen (401,5 milioi euro); inportazioena, berriz, ia-ia 100 bider handiagoa (1.119,9 milioi). Horiek horrela, kanpo-saldoaren defizitak modu azpimarragarrian egin zuen gora; zehazkiago, 2008an, defizitaren zenbatekoa 718 milioi eurokoa izan zen.

Hala ere, 2008az goerotik, EAE krisialdiaren eraginak pairatzen hasi zenetik, Txinatik inportatutakoaren balioa txikiagoa da eta, ondorioz, kanpo-saldoaren defizita murriztu egin da. Halaber, azpimarratu behar da 2011n EA Eren enpresen esportazioen balioa inoiz lortutako altuena izan dela, ia 470 milioi eurokoa.

Bilakaera hori dela-eta, gaur egun Txina herrialde garrantzitsua da EA Eren merkataritzarentzat eta, oraindik gehiago, ekonomia osoarentzat: 2011. urtean, EA Eren Txinatik ekarri zituen bere inportazio totalen %5,3; hara esportatutakoa, berriz, kanpo-salmenta totalen %2,2 izan zen.


Ondorioz, eta orain dela hamabost edo hogeitun urte halakorik imajinatzea zaila bazen ere, 2011. urtean Txina bosgarren tokian azaltzen zen EA Eren inportazioen sailkapenean, harreman komertzialetan tradizio luzeagoko hainbat herrialderi aurre hartuta (Italia, Erresuma Batua, AEB, etab.). Esportazioen kasuan, ordea, Txina oraindik hamargarren tokian agertzen zen, eta hori hango merkatuetan probetxu handiagoa ateratzeko modua dagoelako seinale gisa ulertu daiteke.

3. Taula. EAEko inportazioen eta esportazioen sailkapena herrialdeka, 2011

ESPORTAZIOAK				INPORTAZIOAK			
Zb.	Herrialdea	Milioi €	%	Zb.	Herrialdea	Milioi €	%
1.	Frantzia	4.124,6	19,6	1.	Errusia	2.773,4	16,2
2.	Alemania	3.036,0	14,4	2.	Alemania	1.948,1	11,4
3.	Estatu Batuak	1.311,5	6,2	3.	Frantzia	1.751,5	10,2
4.	Italia	1.189,6	5,6	4.	Iran	1.416,3	8,3
5.	Erresuma Batua	1.178,0	5,6	5.	Txina	906,7	5,3
6.	Belgika	892,8	4,2	6.	Italia	893,0	5,2
7.	Portugal	880,7	4,2	7.	Erresuma Batua	753,5	4,4
8.	Brasil	606,6	2,9	8.	Estatu Batuak	649,7	3,8
9.	Herbehereak	540,7	2,6	9.	Herbehereak	583,3	3,4
10.	Txina	469,9	2,2	10.	Belgika	466,0	2,7
19.	Errusia	211,0	1,0	13.	India	228,6	1,3
23.	India	180,1	0,9	20.	Japonia	142,4	0,8
49.	Japonia	48,2	0,2	31.	Brasil	91,8	0,5
Esportazioak Guztira		21.076,7	100,0	Inportazioak Guztira		17.110,2	100,0

Iturria: Eustat. Egileak landua.

1. Grafikoa. EAeren eta Txinaren arteko kanpo-merkataritzaren garrantzia




Iturria: Eustat. Egileak landua.

Ez da inolako arrazoi berezirik bilatu behar EA Eren eta Txinaren arteko kanpo-merkatutzaren garapena azaltzeko, antzeko bilakaera gertatu baita, oro har, Txinaren eta munduko herrialde gehien artean. Asiako Erraldoia mundu osoko lantegi garrantzitsuena bihurtu da hainbat produkturen ekoizpenean (Buckley, 2009) eta, horren eraginez, enpresa txinatarren salerosketak izugarri handitu dira mundu osoko herrialdeetan.

EB-27ren kasuan, adibidez, Txinatik inportatutako eta esportatutakoaren balioa %400 baino gehiago handitu da 2000-2010 tartean. Ondorioz, 2010ean EB-27ren inportazio totalen %18,8 Txinan ekoiztutako gaiak dira, eta esportazio totalen %8,4 Txinako merkatura zuzenduta daude. Are gehiago, azpimarratu beharra dago Alemaniaren kasuan tasa horiek oraindik altuagoak direla: %21,7 eta %14,1, hurrenez hurren.

2. Grafikoa. Europako herrialdeen eta Txinaren arteko kanpo-merkatutzaren bilakaera



Iturria: Eurostat. Eustat. Egileak landua.

Europako herrialde horien datuei begiratuta, ondorioztatu daiteke EAren eta Txinaren arteko kanpo-merkataritza gutxiago garatu dela, oraingoz. Horri azkenaldiko elkartrukeen hazkundera gehitzen badiogu, badira arrazoiak pentsatzeko hurrengo urteetan harreman ekonomiko horiek gehiago estutuko direla, eta Erkidegoko enpresak Txinako merkatuan izan daitezkeen aukerei etekin handiagoa ateratzeko moduan izango direla.

2.2. Esportatutako eta inportatutako ondasunen analisia

Txinan ekoiztutako produktuei buruz aritzean, maiz gertatzen da soilik teknologia baxuko eta kostu txikiko ondasunak izaten direla buruan. Dena den, nahiz eta lan-faktorean intentsiboak diren jarduerak nagusi izan oraindik ere (Barysch et al. 2005; Lardy, 2005), ekonomialari batzuek azaldu moduan (Rodrik, 2006; Adams et al., 2006), Txinaren espezializazio-ereduak gero eta oinarri sendoagoak ditu teknologia aurreratueta eta ezagutzen.

Datu adierazgarria da Txinak bere BPGaren ia %1,5 inbertitu zuela Ikerkuntza eta Garapenean (I+G) 2007. urtean, hau da, EBren %1,85 tasatik gertu (Eurostat, 2011). Esanguratsua da, modu berean, enpresa multinazional asko (Nokia, Siemens edo Ericsson, esate baterako), azken urteotan Txinan ari direla sortzen ikerkuntza garatzeko zentro berriak³ (UNCTAD, 2008).

EAEko kasura etorrira, inportazioak aztertzean⁴, hiru atal nabarmentzen dira besteen gainera: makineria eta garraio-tresnak (inportazioen balio totalaren %37,5), materialaren arabera sailkatutako salgai manufakturatutakoak (%35,4) eta bestelako salgai manufakturatutakoak (%21,2).

Halaber, makineriaren eta garraio-tresnen kasuan bi ondasun-kapitulu nagusi dira (3. Grafikoa): telekomunikaziorako eta soinua grabatzeko aparatuak (124,6 milioi euro), eta industriarako makineria eta tresnak oro har (106,6 milioi euro). Hala, kapitulu horietan daude Txinatik ekarritako telefono mugikorak, telebistak, MP3 irakurgailuak eta antzeko gailuak, eta horiekin batera, industriarako makina ez-espezializatuak.

3. Aipatutako ikerkuntza-zentro horiek dira, besteak beste, EBn eta AEBetan kezka sortzen dutenak; izan ere, Txinaren lehiakortasun-erreak orain arte teknologia baxuko sektoreetara mugatu da, baina orain balio erantsi handiagoko sektore estrategikoetara hedatzen ari da (automobilgintza, industria kimikoa, etab.).

4. Erkidegoaren eta Txinaren arteko merkataritza-gaien azterketari heltzeko, lehen parte honetan Nazioarteko Merkataritzako Sailkapen Estandarraren (NSMB) arabera lortutako datuak baliatuko dira.

4. Taula. Inportazioak Txinatik EAera, ondasun-atalak


(milaka euro)

NMSB (4. Berrikuspena); atalak	1990	2011
0 Elikagaiak eta animalia biziak	2.024	13.889
1 Edariak eta tabakoak	0	3
2 Elikagaiez besteko gai gordinak, erregaiak izan ezik	2.450	12.642
3 Meazko erregaiak eta labaingarriak, eta ekoizkin elkarlotuak	0	164
4 Animalia- eta landare-etorkiko olioak, koipeak eta argizariak	0	0
5 Produktu kimikoak eta produktu elkarlotuak	331	25.042
6 Salgai manufakturuak, materialaren arabera sailkatuak	2.551	321.140
7 Makineria eta garraio-tresnak	2.392	339.852
8 Bestelako salgai manufakturuak	3.617	191.858
9 Sailkatu gabeak	1	2.130
GUZTIRA	13.364	906.722

Iturria: Eustat. Egileak landua.

Materialaren arabera sailkatutako manufakturen atalean, berriz, burdinaz eta altzairuz egindako ondasunak dira gehien erosten direnak (120,8 milioi euro), eta inportazioen beste kopuru handi bat “beste metalen manufaktura” kapituluan jasotzen da (3. Grafikoa).

3. Grafikoa. Txinatik inportatutako ondasun nagusiak*, 2011



*Kapitulua. NMSB, 4. Berrikuspena.
Iturria: Eustat. Egileak landua.

Beste manufakturen atalean, azkenik, normalean “made in China” ziguilarekin erlazionatzen ditugun hainbat produktu agertzen dira: jantziak eta oinetakoak (87,3 milioi euro), eta baita lan-faktorean intentsiboak diren beste hainbat ondasun ere (esku-zorroak, altzariak, jostailuak, etab.).

EA Eren esportazioak (5. Taula), berriz, oso kontzentratuta daude: 2011n, Txinara esportatutako kopuru totalaren %81,2 makineria eta garraio-tresnak atalari dagokio (sailkapenaren 7. atala); gainontzekoan, gai gordinek eta salgai manufakturatuek biltzen dute esportazioen gehiena (%7,6 eta %7,3, hurrenez hurren).

Kontuan hartuta EAetik munduko gainerako herrialdeei esportatutako totalaren %41 makineria eta garraio-tresnei dagokiela, baieztatu daiteke bereziki handia dela ondasun-mota hori Txinara esportatzeko joera. Beste era batera esanda, esportazio totalen batez besteko %2,2 merkatu txinarrera bideratzen da, eta makineriaren eta garraio-tresnen kasuan, berriz, portzentaje hori %4,4 da⁵. Hala, batez ere atal horretan izandako emaitza positiboak esker gertatu da EAEk Txinan lortutako salmenten gorakada.

5. Taula. Esportazioak EAetik Txinara, ondasun-atalak


(milaka euro)

NMSB (4. Berrikuspena); atalak	1990	2011
0 Elikagaiak eta animalia biziak	0	314
1 Edariak eta tabakoak	0	2.456
2 Elikagaiez besteko gai gordinak, erregaiak izan ezik	212	35.697
3 Meazko erregaiak eta labaingarriak, eta ekoizkin elkarlotuak	0	315
4 Animalia- eta landare-etorkiko olioak, koipeak eta argizariak	0	414
5 Produktu kimikoak eta produktu elkarlotuak	12	2.428
6 Salgai manufakt., gehienbat materialaren arabera sailkatuak	6.760	34.209
7 Makineria eta garraio-tresnak	13.319	381.802
8 Bestelako salgai manufakturatuek	300	11.031
9 Sailkatu gabeak	0	1.253
GUZTIRA	20.603	469.919

Iturria: Eustat. Egileak landua.

5. Makineria eta garraio-tresnak inportazioetan eta esportazioetan dira garrantzitsuak; horren harian, pentsatu daiteke industria- eta enpresa-barneko fluxuak izan daitezkeela balio altu horien eragileak. Dena den, hipotesi hori egiaztatu ahal izateko, azterketa sakonagoa egin beharko litzateke.

4. Grafikoa. Txinara esportatutako ondasun nagusiak*



*Kapitulua. NMSB, 4. Berrikuspena.

Iturria: Eustat. Egileak landua.

Zazpigarren ataleko ondasunak zehaztasun handiagoz aztertzean (4. Grafikoa), lau kapitulu nabarmentzen dira: metalak lantzeko makinak (2011n, esportazioen %21), errepedeko ibilgailuak (%20,9), industria jakin batzuetarako makineria bereziak (%14,1) eta industriarako makineria eta tresnak oro har (%13,8). Kapitulu horietan guztietan esportazioen balioa modu adierazgarrian handitu da; azkeneko urteotan, bereziki igo dira metalak lantzeko makinak eta errepedeko ibilgailuen salmentak.


Makineria eta garraio-tresnen kasuan, EAEko kanpo-saldoak 42 milioi euroko superabita azaltzen du. Inportazioen balioa handia den beste ataletan, ordea, esportazioen zenbatekoa txikia denez, defizit handia sortzen da: materialaren arabera sailkatutako salgai manufakturatuetan, 286,9 milioi euro, eta beste salgai manufakturatuetan, 180,8 milioi (5. Grafikoa).

Orain arte egindako analisiaren arabera, sumatu daiteke EAEko enpresek kostu baxuko eta lan-faktorean intentsiboak diren produktuez gain, beste hainbat ondasun ere ekartzen dituztela Txinatik. Dena den, susmo horiek zuzenak diren egiaztatzeko asmoz, jarraian esportazioen eta inportazioen teknologia-edukiaren analisia egingo da⁶.

Datuek agerian uzten dutenez (6. Taula), 2011n, inportazioen %58,4k teknologia-eduki txikia edo ertain-txikia dauka. Aurrez aipatutako jantziak, oinetakoak, ehunak, etab., teknologia-eduki txikiko produktuen artean daude; metalezko manufaktura, kautxuzko eta plastikozko produktuak, eta antzeko produktuak, aldiz, teknologia ertain-txikiko produktuen artean.

6. Kontuan hartu teknologia-edukiaren arabera egindako sailkapenean, Eustatek ez dituela jasotzen zenbait ondasuni buruzko datuak.

5. Grafikoa. EAEko kanpo-saldoa ondasun-atal nagusietan, 2011



Iturria: Eustat. Egileak landua.

Teknologia-eduki ertain-handiko inportazioen pisua, berriz, %35,4koa da; maila horretan sailkatzen dira fabrikatutako material eta tresneria elektrikoa, eta, neurri txikiagoan, industria kimikoko produktuak eta bestelako garraio-materialak.

Amaitzeko, teknologia-eduki handiko erosketen dagokien portzentajea altua da, %6,2koa, hain zuzen ere. Zehaztu behar da, hala ere, maila horretan sailkatuta daudela produktu informatikoak eta elektronikoak, eta, neurri handi batean, produktu horiek Txinak muntatu baino ez dituela egiten, osagai teknologikoak inguruko herrialdeei erosi ostean (Barysch et al., 2005; Lardy, 2005).

6. Taula. EAren eta Txinaren arteko merkataritza, teknologia-edukiaren arabera, 2011

(%)

Teknologia-edukia	Esportazioak	Inportazioak
GUZTIRA	100,0	100,0
A Teknologia-eduki handia	2,3	6,2
B Teknologia-eduki ertain-handia	85,6	35,4
C Teknologia-eduki ertain-txikia	8,7	38,3
D Teknologia-eduki txikia	3,4	20,1

Iturria: Eustat. Egileak landua.

Datu horien aldean, EAEk Txinan saldutako produktu gehienak teknologia-eduki ertain-handikoak dira (%85,6), batez ere, material eta tresneria elektrikoa, eta bestelako makineria eta tresnak. Teknologia-maila handiko produktuei dagokien portzentajea, berriz, txikia da (%2,3), oro har Erkidegoko guztizko esportazioei dagokienaren antzekoa.

Argi gelditzen da, beraz, teknologia-maila baxuko produktuek osatzen dutela oraindik Txinan erositakoaren gehiengoa; are gehiago, berretsi egiten da herrialde hori dela EAEko hornitzaile nagusia kostu txikiko hainbat manufaktura-salgaitan (altzariak, jantziak, oinetakoak, ehunak, jostailuak, etab.). Halaber, teknologia aurreratuagoen bidez ekoiztutako produktuak ere modu esanguratsuan erosten dira, eta, ondorioz, ezin dira oharkabean utzi EAEko industriari aurrean izango dituen erronka berriak.

Esportazioen aldetik, azpimarratu behar da salmentak oso kontzentratuta daudela manufaktura-jarduera bakan batzuetan. Dirudenez, makinak eta garraio-tresnak fabrikatzen dituzten enpresek merkatu-aukera politak aurkitu dituzte Txinan. Hala, sektore horretako enpresek egin duten ibilbideari jarraituz, komenigarria litzateke modua aurkitzea Erkidegoko beste sektoreetako enpresak ere Asiako Erraldoiaren merkatuan barneratzeko.

3. EAEko ENPRESEN NAZIOARTEKOTZEA TXINAN

Dunningek azaldutako OLI⁷ paradigmaren arabera, enpresa batek atzerrian lantegi berri bat irekitzeko erabakia hartzen duenean, batez ere hiru abantaila-mota hartzen ditu kontuan: lehendabizi, jabego-abantailak, hau da, enpresaren jabegoa mantentzeak ekarriko dizkion abantailak (nagusiki, teknologia eta produktuak imitatzeke zailtasun handiagoak); bigarren, tokitze-abantailak, bereziki produkzio-faktoreen ugaritasun erlatiboa (eta haien kostu txikiagoa) eta merkatuetan sartzeko kostu baxuagoak; eta, hirugarren, barneratze-abantailak, alegia, transakzio-kostu handiko jarduerak enpresa barruan mantentzeagatik lortuko diren abantailak (Dunning, 1977).

Dunningek tokitze-abantailei buruz azaldutakoari jarraituz, 1978tik aurrera merkatu-ekonomia sustatzeko Txinan onartutako erreformek erabat aldatu dute kanpoko enpresen balorazioa herrialde horretan kokatzeko abantailei dagokienez. Zalantzarik gabe, erreforma horiek oso sakonak izan dira, eta aldaketa handiak ekarri dituzte; nagusiki ekarri dute estatuaren parte-hartzea txikiagotzea eta kanpo-irekiera handitzea.

7. OLI laburdura ingelesetik dator: "Ownership advantages", "Location advantages" eta "Internalization Advantages".

Kanporantz irekitzeko prozesua mailaz maila gertatu da, eta horren adibide dugu atzerriko inbertsioarekin jazotakoa: lehendabizi, 1980. urtean, Txinako gobernuak abantaila bereziak eskaini zizkien kanpoko inbertitzaileei bi probintzian (Eremu Ekonomiko Bereziak); geroago, 1984an, beste 14 hiritara zabaldu zituen pizgarri horiek; eta, amaitzeko, 1992an, Deng Xiao Pengek berak, Talde Komunistaren liderrak, eremu horietara bidaia egin eta argi utzi zuen erreformek ez zutela atzera bueltarik. Hala, bidaia hori erabakigarria izan zen atzerriko inbertsioaren gorakada bultzatzeko.

Argi dagoenez, Asiako Erraldoiaren zenbait ezaugarri oso erakargarri dira gaur egun mundu osoko enpresentzat: kontsumo-merkatu izugarri handia, eskulan merkea, Asiako ekialde osora esportatzeko kokapen estrategikoa, etab. Hala, 2010. urtean, Txina izan zen munduko bigarren herrialdea, AEBen atzetik, atzerriko zuzeneko inbertsio-kopururik handiena izan zuena: 106.000 milioi dolar, aurreko urtean baino %11 gehiago (UNCTAD, 2011).

Gainera, artikulu honen aurreko atalean teknologia-edukiari buruz esandakoari helduta, aipagarria da inbertsioa ez dela lehen bezainbeste zuzentzen lan-faktorean intentsiboak diren jardueretara. Garapenaren eraginez, soldatak eta ekoizpen-kostuak handitzen ari dira; ondorioz, orain, atzerriko enpresek nahiago dute teknologia-maila handiagoko jardueretan inbertitu.

EAeren kasura etorruta, Espainiako Inbertsio Erregistroaren datuen arabera (7. Taula), 1993-2011 tartean Erkidegoak ia 2.500 milioi euroko inbertsio zuzena pilatu du Txinan –eta Hong Kongen–⁸; kopuru hori epe horretan EAek atzerrian inbertitutako totalaren %3,68 da. Dena den, aipatu beharra dago, zenbateko horren gehiengoa BBVA banketxeak egindako inbertsioari dagokiola⁹. Hala, finantza-zerbitzuak alde batera utzita, Txinan egindako inbertsioa 112,6 milioi eurokoa izan da, hau da, guztizko atzerriko inbertsio ez finantzarioaren %0,3.

Azkeneko kopuru hori modu zehatzagoan aztertzean lau jardueren garrantzia azaltzen da besteen gainera: material eta ekipamendu elektrikoaren ekoizpena (39,7 milioi), metalgintza eta metalezko produktuen ekoizpena (25,1 milioi), argindarraren eta gasaren hornidura (19,5 milioi), eta ibilgailu motordunen ekoizpena (14,6 milioi).

8. Ekoizpenean eragina duen inbertsioa aztertzeko Atzerriko Baloreak Edukitzeko Erakundeek (ABEE) egindako inbertsioak baztertu dira. Hala ere, ABEEk egindako inbertsioen kopurua oso txikia izan da: 4 milioi euro baino ez.

9. BBVAk bi banketxeen kapitala eskuratzeko egindako inbertsioa (China Citic Bank eta Citic International Financial Holdings).

7. Taula. EAEko inbertsio zuzena Txinan*, 1993-2011

Sektoreak	Milioi euro	EAEko inbertsio totalaren %
Merkataritza	7,4	1,6
Metalgintza, metalezko produktuen ekoizpena	25,1	2,2
Material eta ekipamendu elektrikoa	39,7	5,4
Ibilgailu motordunak	14,6	31,4
Argindarraren eta gasaren hornidura	19,5	0,1
Beste jarduerak	6,2	0,1
Guztira (finantza-zerbitzuak kenduta)	112,6	0,3
Finantza-zerbitzuak	2.488,2	3,7

* Txinan eta Hong Kongen.

Iturria: Espainiako Inbertsio Erregistroa. Egileak landua.

Bestalde, erregistroaren datuen arabera, 1993-2011 epean Txinak EAEn gauzatutako inbertsio zuzena 5 milioi euro azpitik dago. Hortaz, nabari da momentuz kanpo-merkataritza eragiketen zenbatekoa –ia 1.500 milioi euro urtero, esportazioak eta inportazioak batuta–, inbertsio-eragiketena baino askoz handiagoa dela.

EAEko enpresek ez dute abantaila berezirik Txinan ezartzeko, historian zehar ez baita izan hango lurraldearekiko elkarlan-usadiorik edo kultura-uztartze aipagarriarik. Kanpo-merkataritza fluxuak batez ere azkeneko urteotan handitu dira; antzeko moduan, Txinan ezartzea erabaki duten euskal enpresa gehienek 2005etik aurrera gauzatu dute ekimen hori, europar enpresek baino zertxobait beranduago, eta aitzindariak baino dezente geroago (Japonia eta AEBetako enpresak).

SPRIren datuen arabera, 2012. urtean EAEko enpresek 184 establezimendu dituzte Txinan (8. Taula). 2008. urtean kopuru hori 107 establezimenduko zen; beraz, lau urteko epean 75 kokagune berri sortu dira, eta horrek argi adierazten du azkeneko urteotan ezartze-erritmoa bizitu dela.

Kokapen geografiko zehatzari begira, EAEko enpresa gehienak Txina ekialdeko kostaldean ezarrita daude: Shanghain (%25), Jiangsun (%25), Beijingen (%18), Zehjjiangen (%9), Guandongen (%6) eta probintzia horien inguruetan. Banaketa hori erabat koherentea da europar enpresenarekin, eremu geografiko horretan azpiegiturak bikainak baitira industria-jarduerak gauzatzeko (Andreosso-O’Callaghan eta Wei, 2002).

Bestalde, SPRIren datuekin jarraituz, EAeko enpresek sortu dituzten establezimenduen proportzio esanguratsu batek manufaktura-produktuak ekoiztea du helburu (%38,5k), beste portzentaje garrantzitsu batek salerosketak egitea (%37,5k), eta gainontzeko enpresek zerbitzuak eskaintzea (%24k).

Banaketa sektorialari begira, makineria eta mekanikazko tresneriaren industriako establezimenduak dira nagusi; kopurua altua da, halaber, material elektrikoaren eta elektronikoaren industrian, metalgintzan eta garraio-materialen industrian. Hortaz, inbertsioaren banaketa sektoriala bat dator aurrez aztertutako kanpo-merkataritza datuekin.

8. Taula. EAeko enpresen jarduera Txinan, 2012

	Establezimenduak
Merkataritza- eta zerbitzu-jarduerak	44
Makineriaren eta mekanikazko tresneriaren industria	60
Garraio-materiala, motordun ibilgailuak eta atoiak	15
Material eta ekipamendu elektriko eta elektronikoa	27
Metalgintza eta metalezko ekoizkinak egitea	23
Bestelako manufakturen industriak	15
Guztira	184

Iturria: SPRI. (2012ko maiatza).

Euskal Industria eta Esportatzaileen Katalogoak¹⁰ ere datu eta zehaztasun interesgarriak jasotzen ditu EAeko enpresen atzerriko inbertsioa aztertzeko (9. Taula). Hala, Txinan ezarpen finkoa duten tamaina handiagoko –250 langile baino gehiago– industria-enpresen zerrenda aztertzean, bi ondorio nagusi atera daitezke: lehenengoa, enpresa gehienek makina-erremintak edota industriarako makineria ekoizten dituztela; eta, bigarengoa, enpresa horietako asko Beijing eta Shanghai probintzietan kokatuta daudela.

10. Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren eta EAeko hiru merkataritza-ganbaren arteko lankidetzari esker Euskal Industria eta Esportatzaileen Katalogoak (CIVEX) 7.000 industria-enpresa, zerbitzu aurreratueta enpresa eta enpresa esportatzaile baino gehiago biltzen ditu. Hala ere, katalogoa eguneratzeko ahalegina handia den arren, ezaguna da bertan ez daudela bilduta tamaina txikiko eta ertaineko industria-enpresa asko. Katalogoaren arabera, 2011. urtean EAeko 68 industria-enpresa ezarrita zeuden Txinan –eta Hong Kongen–.

**9. Taula. Txinan ezarpen finkoa duten
EAEko industria-enpresa handiak* (CIVEX)**

Izena	Langile-kopurua	Ezarpena Txinan**		
		Non	Ezarpen-mota	Produktuak
Batz, S. Coop.	499	Kunshan	ekoizpena	Autoentzako osagaiak
Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles	2.326	Hong Kong	Merkataritza	Trenak
Copreci	626	Hong Kong Txina (hainbat)	ekoizpena	Etzetresna elektrikoentzako osagaiak
Danobat Group, S. Coop.	387	Beijing	Merkataritza	Makina-erremintak
Danobat, S. Coop.	428	Beijing	Ordezkaritza-bulegoa	Makina-erremintak
Fagor Arrasate, S. Coop.	507	Shanghai Kunshan	Esportaziorako partzuergoa	Industriarako makinak
Fagor Automation, S. Coop.	474	Beijing	ekoizpena Merkataritza	Makina-erremintak
Fagor Industrial, S. Coop.	443	Jiangsu Txina (hainbat)	ekoizpena Merkataritza	Ostalaritzarako ekipamenduak
Geyser Gastech, S.A.	272	Hangzhou	ekoizpena	Gasezko ur-berogailuak
Irizar, S. Coop.	729	Tianjin	Enpresa-elkarte	Autobusak
Orkli	424	Hong Kong Txina (3)	Merkataritza Ekoizpena	Berogailuak, bero-sistemak
Ormazabal International Business, S.A.	500	Shanghai	ekoizpena	Elektrizitate-instalakuntzarako gailuak
Tubos Reunidos Industrial, S.L.U.	800	Beijing	Merkataritza	Altzairuzko tutuak (oliobideak, gasbideak...)
Tubos Reunidos, S.A.	943	Beijing	Merkataritza	Altzairuzko tutuak (oliobideak, gasbideak...)
Ulma C Y E, S. Coop.	1.190	Nantong	ekoizpena Merkataritza	Eraikuntzarako produktuak

* 250 langile eta gehiago.

** Txinan eta Hong Kongen.

Iturria: Euskal Industria eta Esportatzaileen Katalogoa (CIVEX). 2011ko azaroa. Egileak landua.

Zerrenda horretan Mondragon Korporazioaren hainbat enpresa azaltzen dira. Horren harian, aipatu beharra dago Mondragon taldeak inbertsio garrantzitsua gauzatu duela Txinan, bereziki Kunshan hirian. Talde kooperatiboak 2007an jarri zuen martxan Kunshango enpresa-parkea –Kunshan Shangaitik 40 kilometrora dago–, eta 2011. urtea arte 50 milioi euro baino gehiago inbertitu ditu. Besteak beste, taldearen ondorengo enpresa hauek kokatuta daude parke horretan: Batz, Fagor Arrasate, Fagor Metal Forming Machine Tool, Orbea, Orkli eta Oiarso.

Dena den, enpresa handi batzuek Txinan ezartzearen aldeko apustu garbia egin badute ere, nazioartekotze-plan horiek tentuz gauzatu behar dira, eta ohikoak ez diren oztopoak eta trabak gainditzeko moduak pentsatu behar dira.

EAEko enpresek, europar enpresen antzera, salatzen dute zailtasun bereziei aurre egin behar dietela Txinan lehiatzeko; izan ere, han araudi berezia dago atzerriko enpresentzat, traba administratiboak, inbertsio zuzena bideratzeko mugak, teknologia babesteko arazoak... Hain zuzen ere, horrexegatik da bereziki erabakigarria erakunde publikoek laguntza eskaintzea Txinan kokatuta dauden eta kokatzeko asmoa duten enpresei.

4. EAEko ERAKUNDE PUBLIKOEN SUSTATUTAKO EKIMENAK

80ko hamarkadan, EB Txinarekin harremanak sustatzen hasi zenean, bere estrategia elkarlanean oinarritu zen; agintari europarrak jarrera hori bi herrialdeen mesedetan izango zelakoan zeuden. Urteak pasa eta merkataritza-defizita handitu ahala, ordea, EBk modu esanguratsuan aldatu du bere estrategia (European Commission, 2006), eta Txinari merkaturako arauak errespetatu ditzen eskatu dio.

EBk hiru arazo nagusi salatzen ditu: lehenengoa, jabetza intelektualaren eskubideen babes falta; bigarrena, Txinak oztupo berriak jarri dizkiela atzerriko lehiakideei; eta hirugarrena, agintari txinatarren interbentzioa desgokia dela hango enpresen esportazioak sustatzeko (araz kontrako laguntzak, dumpinga, etab.). Hala, Europako Batzordearen ikerketa baten arabera, 2004. urtean, enpresa europarrek 21.400 milioi euroko kostuak jasan zituzten agintari txinatarrek inbertsioari eta merkataritzari ezarritako traben ondorioz (European Commission, 2007).

EAEko egoerari begira, hainbat erakunde daude gure enpresen nazioartekotzea erraztea helburu dutenak; garrantzitsuenak dira Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila, Eusko Ganberak eta SPRI. Bestalde, Erkidegoko enpresek Espainiako eta Txinako erakundeetara ere jo dezakete laguntza bila. Erakunde horiek

guztiek eskaintzen duten sostengua modu askotakoa da: informazio-bilaketa (herrialdearen ezaugarriak, merkatuaren berezitasunak...), trebakuntza-ikastaroak, laguntza fiskalak, diru-laguntzak, etab.

Txinan ezartzeari dagokionez, inkesta batean bildutako datuen arabera (Orkestra eta Deustuko Unibertsitatea, 2009), informazioa eta diru-laguntzak lortzeko orduan, Erkidegoko enpresa gehienek EAEko eta, maila apalagoan, Espainiako erakundeen babesa izan dute (10. Taula). Enpresen portzentaje txikiago batek laguntza fiskalak jaso ditu (batez ere Txinako eta EAEko erakundeetatik), eta gutxi batzuek trebakuntza-ikastaroetan parte hartzeko aukera izan dute (normalean, EAEko erakundeen laguntzarekin).

10. Taula. EAEko enpresek jasotako laguntzak, erakundearen arabera, 2008

(enpresen %)

	Laguntza fiskalak	Diru-laguntzak	Informaz.	Trebak.	Besteak	Orotara
EAEko erakundeak	9,1	51,5	54,5	12,1	3,0	75,8
Komertzio Ganberak	3,0	9,1	33,3	9,1	3,0	39,4
Espainiako erakundeak	0,0	24,2	36,4	6,1	3,0	51,5
Txinako erakunde erregionalak	15,2	9,1	15,2	0,0	0,0	30,3
Txinako erakunde nazionalak	6,1	0,0	0,0	0,0	0,0	6,1

Iturria: SPRI. Orkestra eta Deustuko Unibertsitatea (2009).

Bestalde, Txinan horrenbeste traba daudenez, garrantzitsua da erakunde publikoek tokian tokiko laguntza eskaini ahal izatea. Hala, Europako erakundeen kasuan, bulego-sarea nabarmen zabaldu da azkeneko urteotan, eta egun EBK bi ordezkari ofizial ditu (Beijingen eta Hong Kongen), eta EBko Komertzio Ganberak bederlatzi bulego ditu (Beijingen eta beste zortzi hiritan).

EAEko erakunde publikoen kasuan, SPRIk bi bulego zabaldu ditu Txinan: lehenengoa, Shanghain, 2003. urtean; eta bigarrena, Beijingen, 2011n. Halaber, Txinan ezarpen finkorik ez badute ere, funtsezkoak dira euskal enpresak ezagutarazteko helburuz Eusko Ganberak eta beste erakunde batzuek herrialde hartan antolatzen dituzten ekitaldiak (erakustaldiak, enprekin batera egindako bisita ofizialak, etab.).

Amaitzeko, erakunde publikoek sustatutako ekimenen artean, bereziki aipagarria da lehendakariak 2010eko irailean Txinara egindako bisita ofiziala.

Txinatar kulturari, oso garrantzitsua da negozioen munduan hasi baino lehen harreman pertsonalak estutzea; “guanxi”, “renqing” eta “xinyong” kontzeptuek horixe adierazten dute, hain zuzen ere (Ordóñez de Pablos, 2004). Hori kontuan hartuta, EAEko agintari nagusien parte hartzea oinarritzeko izango da etorkizunari begira harremanak estutzeko eta, bide batez, Txinan ezarrita dauden enpresei bultzada berria emateko.

5. ONDORIOAK

Historian zehar ez da izan EAEren eta Txinaren arteko elkarlan-usadiorik edo kultura-uztartzeko aipagarriarik, eta bi herrien arteko harreman ekonomikoak gutxi garatuta zeuden orain dela gutxi arte. 80ko hamarkadatik Txinak lortu duen hazkunde ekonomiko biziaren eraginez, ordea, Asiako Dragoi Handia munduko ekonomiaren protagonista bihurtu da, eta bi ekonomien arteko loturak estutu egin dira.

Hala ere, oraindik ez dago batere argi prozesu horren ondorioak onuragarriak izango diren. Artikulu honetan bi herrialdeen arteko merkataritzaren oinarritzeko datuak azaldu eta aztertu dira, eta zenbait ondorio eta proposamen interesgarri aurkeztu dira:

- Ondorengo urteotan Txinan jazoko diren gertakizunek (hazkunde-eritimoa, erreformen norabidea, etab.) eragin handia izango dute EAEko ekonomian; izan ere, egungo krisialdian, barne-kontsumoa eta inbertsioa moteldu diren garai hauetan, kanpo-eskariaren dinamikotasunak bultzatzen du Erkidegoaren produkzioa.
- Kanpo-merkataritzaren eta inbertsio zuzenaren datuek islatzen dutenez, bi lurraldeen arteko lotura ekonomikoak modu bizian estutu dira 2000tik aurrera: 2011n, EAEk Txinan erosi zuen bere guztizko inportazioen %5,3, eta Txinako merkatuan saldu zuen bere esportazio totalen %2,2.
- Txinako ekoizleek EAEko eta herrialde garatuetako enpresei jarritako erronkak gero eta teknologia-maila handiagoko sektoreetara hedatzen ari dira, eta hori arriskutsua izan daiteke, sektore horiek izaten baitira, epe luzean, hazkunde-tasa handienak lortzen dituztenak.
- Oraingoz, batez ere makineria eta garraio-tresnak ekoizten dituzten enpresek lortu dute Txinako merkatuan barneratzea; industria-mota horretan, salmenten eta erosketen kopuruak handiak dira. Beste sektore batzuen kasuan, aldiz, Erkidegoa gehienbat eroslea da (altzairuz eta beste materialez egindako enbriaturak, eta bestelako salgai enbriaturatuak).

- Alemaniak, Frantziak eta Italiak beren esportazio totalen portzentaje dezente handiagoa saltzen dute Txinan; beraz, espero izatekoa da EAEko beste sektore eta enpresa batzuek ere hango merkatuan etekin handiagoa lortzeko moduan egotea.
- Txinak hainbat abantaila eskaintzen ditu atzerriko enpresentzat: langileen kostu baxuak, Asiako ekialdera esportatzeko gertutasun geografikoa, etab. Ondorioz, EAEko gero eta enpresa gehiagok erabaki dute Txinan ezartzea; tokitzea batez ere Shanghai, Jiangsu eta Beijing hirien inguruetan gauzatu da, industria-jarduerentzat azpiegitura egokiak dituzten eremuetan.
- Epe motzean, inbertsio horrek sortzen duen aberastasunaren parte bat atzerrian geldituko da, batik bat, langileen soldatak eta bestelako inputen erosketak. Epe luzean, ordea, inbertsio horren truke EAEko enpresek lortuko dituzten lehia-abantailak gure inguruko lantokien bideragarritasunaren aldekoa izan daitezke.
- Atzerriko enpresek Txinako merkatuan barneratzeko ezohiko zailtasunak dituztenez, erabakigarria da oso erakunde publikoen parte-hartzea (informazioa, trebakuntza, diru-laguntzak, etab.); orobat, Txinako kulturaren harreman pertsonalek garrantzi handia dutenez, bereziki sustatu behar dira Erkidegoko enpresak ezagutzera emateko ekitaldiak (bisita ofizialak, erakustaldiak...).

Beraz, agerikoa denez, Txinaren hazkundeak aukerak eta erronkak dakartza EAEko ekonomiarentzat eta herrialde garatu guztiontzat. Kontuan izanda ekonomia globalean enpresa askoren jarduera finantzatzen duen kapitala nazioartekoa dela, “gure enpresen” eta “atzerriko enpresen” mugak gero eta ahulagoak direla, eta kapital-jabeen irizpide nagusia, ia bakarra, errentagarritasuna dela, erraz asko ondorioztatuko dugu “gure enpresak” Txinako erronkei aurre egin beharrean direla, eta beren etorkizuna estuki lotuta egongo dela inguru global berri honetan lehiakor izateko gaitasunarekin.

6. BIBLIOGRAFIA

- ADAMS, F.; et al. (2006): Why is China so Competitive? Measuring and Explaining China's Competitiveness. *The World Economy*. Vol. 29, N. 2, 95-122. February 2006.
- ANDREOSSO-O'CALLAGHAN B. eta WEI X (2002): *EU FDI in China: Locational Determinants and its Role in China's Hinterland*. Proceedings of the 15th Annual Conference of the Association for Chinese Economic Studies Australia (ACESA).
- BALDWIN, R. eta MARTIN, P. (1999): Two Waves of Globalisation: Superficial Similarities, Fundamental Differences. National Bureau of Economic Research, 1/1999.
- BARYSCH, K.; et al. (2005): Embracing the dragon. The EU's partnership with China. Centre for European Reform. May 2005.
- BUCKLEY, P. J. (2009): The impact of the global factory on economic development. *Journal of World Business*. Vol. 44, pp. 131-143.
- CEISS CONSULTORES (2009): *De Europa a Asia, un mundo lleno de posibilidades. Internacionalización de las empresas de la Comunidad Autónoma Vasca y Navarra. China e India*. CEISS Consultores.
- DUNNING, J. H. (1977): Trade, Location of Economic Activity and the MNE: A search for an Eclectic Approach. The International Allocation of Economic Activity. New York.
- EKONOMIA eta OGASUN SAILA (2012): Kointuraz. 80. buletina. 2012ko urriaren 24an. Eusko Jaurlaritzza.
- EUROPEAN COMMISSION (2006): "EU-China: Closer partners, growing responsibilities". COM (2006) 632 final.
- EUROPEAN COMMISSION (2007): "Study into the Future Opportunities and Challenges in EU-China Trade and Investment relations 2006-2010".
- EUROSTAT (2011): Science, technology and innovation in Europe. 2011 Edition. Eurostat Pocketbooks. European Commission. ISSN 1830-754X.
- ICEX (2012): Empresas españolas establecidas en: China. ICEX.
- KUTXABANK eta EUSKO GANBERAK (2012): Euskadi 2012. Empresa Perspektibak. Kutxabank.
- LARDY, N. (2005): *The Great New Economic Challenge?. The United States and The World Economy: Foreign Economic Policy for the Next Decade*. Institute for International Economics.
- MCKAY, H. eta SONG, L. (2010): China as a Global Manufacturing Powerhouse: Strategic Considerations and Structural Adjustment. *China and World Economy*. Vol. 18 (1), 1-32.

- ORDÓÑEZ DE PABLOS, PATRICIA (2004): La importancia de guanxi, renqing y xinyong en las relaciones empresariales en China: implicaciones para las empresas españolas. *Tribuna de Economía ICE*. N° 818. Octubre de 2004.
- ORKESTRA eta DEUSTUKO UNIBERTSITATEA (2009): *The Basque Firm in China*. Deustuko Unibertsitatea. San Sebastián-Donostia.
- RODRIK, D. (2006): *What's So Special About China's Exports?*. Faculty Research Working Papers Series. John F. Kennedy School of Government. Harvard University. January 2006.
- SALAVRAKOS, IOANNIS-DIONYSIOS (2009): Determinants of German Foreign Direct Investment: A Case of Failure? *European Research Studie*. Vol. 12-2 pp. 3-25.
- UNCTAD (2008): *World Investment Report 2008. Transnational Corporations and the Infra-structure Challenge*. New York and Geneva, 2008.
- UNCTAD (2011): *World Investment Report 2011. Non-equity modes of international production and development*. New York and Geneva, 2011.